# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

678

**53/1989 DEKRETUA, otsailaren 28koa, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Udalen artean gizarte eta hirigintzazko azterlanak eta birgaikuntzarako plan bereziak idazteko Hitzarmenak sinatzeko oinarriak ezartzen dituena.**

Euskal Autonomi Elkarteko Aurrekontu Orokorretan badago 1989. urterako diruizendapen bat Udalei dirulaguntzak emateko, Birgaikuntza Plan Bereziak egin ditzaten. Ustez, hitzarmen bidez lor daiteke hoberen Eusko Jaurlaritzaren eta Udalen arteko erakundezko lankidetza, Eusko Jaurlaritzak 278/1983 Dekretuan hirigintzatu eta eraikitako ondarearen eta batez ere etxebizitzen birgaikuntzarako ezarri zituan helburuak lortzeko bideratuta dagoen lankidetza.

Horrela, 1984, 1985, 1986, 1987 eta 1988 urteetan egindako ahaleginari jarraipena ematen zaio, eta udal administrazioa zuzpertu egiten da gai horretan dituen eskuduntzak eta erantzukizunak bere gain har ditzan.

Horien ondorioz, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuaren proposamenez, eta 1989.eko otsailaren 28ko bileran Jaurlaritzako Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. Atala.* 1. Lankidetza hitzarmenak izenpetzea eskatu ahal izango diote Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Udalek, Birgaikuntza Bateratuko Eremukotzat aldarrika daitezkeen udalerriko eremuetarako Gizarte eta Hirigintzazko Azterlanak edo/eta Birgaikuntza Plan Bereziak idazteko, Dekretu honetan ezarritako oinarri-arauekin bat etorriz.

2. Autonomi Elkarteko beste Ihardute-Sail, Erakunde eta Elkarte batzuetara zabaldu ahal izango dira hitzarmenak, aurrez, doakion Udala eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila ados jarri ondoren.

*2. Atala.* 1. Aipatu hitzarmenak izenpetzeko, lehentasuna izango dute honako inguruabarrak:

a) Gizarte eta Hirigintzazko Azterlana edo Birgaikuntza Bateratuko Eremutzat har daitekeen ingururen bateko kartografia idazteko dirulaguntzaren bat jaso izana edo lankidetza hitzarmenen bat izenpetuta izatea.

b) Indarrean dagoen Lurraren Legearekin bat etorriz, hirigintzazko Plangintza orokorraren lehenengo onarpena edo araketa egina izatea, edo ahal denik eta aurreratuen izatea behin betiko onarpena.

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

678

**DECRETO 53/1989, de 28 de febrero, por el que se establecen las bases para la suscripción de Convenios entre el Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente y los Ayuntamientos de Alava, Guipuzcoa y Bizkaia para la redacción de estudios socio-urbanísticos y planes especiales de rehabilitación.**

En los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 1989 se contiene una partida destinada a la subvención a los Ayuntamientos con la finalidad de elaborar Planes Especiales de Rehabilitación. Se estima que la forma de convenio es la mejor para establecer una colaboración institucional entre el Gobierno Vasco y los Ayuntamientos tendente a conseguir el cumplimiento de los objetivos que sobre la rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado y en especial de las viviendas estableció el Gobierno Vasco en su Decreto 278/1983.

De esta manera se continúa el esfuerzo realizado durante los años 1984, 1985, 1986, 1987 y 1988 y se incentiva a la administración municipal para asumir sus competencias y responsabilidades en la materia.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día de 28 de febrero 1989.

DISPONGO:

*Artículo 1.* 1.– Los Ayuntamientos de Alava, Guipúzcoa y Bizkaia podrán solicitar del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, la suscripción de convenios de colaboración para la redacción de los Estudios Socio-Urbanísticos y/o Planes Especiales de Rehabilitación de aquellas áreas de su término municipal que sean susceptibles de declaración de Area de Rehabilitación Integrada, de conformidad con las bases que se establecen en el presente Decreto.

2. Los convenios podrán ser ampliados a otros Organos, Organismos y Entidades de la Comunidad Autónoma, previo acuerdo del Ayuntamiento interesado y del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente.

*Artículo 2.* 1.– Se consideran circunstancias que otorgan prioridad para la suscripción de los convenios indicados las siguientes:

a) Haber recibido subvención o suscrito convenio de colaboración para redactar el Estudio Socio-Urbanístico o la cartografía de un conjunto susceptible de ser Area de Rehabilitación Integrada.

b) Haber realizado la primera adopción o revisión del Planeamiento urbanístico de carácter general de conformidad con la vigente Ley del Suelo, o tener lo más adelantado posible el proceso de su aprobación definitiva.

c) Birgaikuntza Eremuari buruz, hirigintzatu eta eraikitako ondarearen birgaikuntzaren arazoetaz udalak interesa duela adierazten duten azterlanak, planak eta egitasmoak eginak izatea.

d) Eremuari buruzko espedienteari hasiera emanda edo Kondaira Artezko Inguru aldarrikatua izatea.

*3. Atala.* 1. Lankidetza hitzarmenaren xedea da Gizarte eta Hirigintzazko Azterlanak idaztea, horien gutxieneko edukinak arautzen dituen Lurralde Politika eta Garraioetarako Sailaren Aginduan ezarritakoaren arabera, edo/eta Birgaikuntzarako Plan bereziak egitea, abenduaren 5eko 278/1983 Dekretuaren arabera, indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz Udalei dagozkien izapidetza eskuduntzen kaltetan izan gabe.

2. Halaber, hitzarmenaren xede izan daiteke kartografia idaztea ere, 1/500 edo 1/200eko neurri-heinera, aurreko idazatian aipatutako lanak ondoren egin ahal izateko beharrezkoa dena alegia.

*4. Atala.* 1. Hitzarmena honako oinarri-arauei lotuko zaie:

a) Hitzarmenaren xede diren lanen kontratazioa, beharrezko eritzitako lantalde teknikoekin egingo du Udalak, hortarako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren oneritzia beharko duelarik.

b) Udalak eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak arduradun bana izendatuko dute, lanen Zuzendari; hauek, lanak hobeto garatzeko beharrezko aginduak emateko ardura izango dute eta bakoitzak bere administrazioarekin lotura lana egingo du.

c) Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak eman ahal izango duen dirulaguntza ez da izango hitzarmenaren xede diren lanen idazketa lansarien kostuaren %90 baino handiagoa ez %30 baino txikiagoa, dagokion B.E.Z. barne, Udalerri guztientzak erizpide berdinekin kalkulatuko direlarik.

d) Kontratuan zehaztu beharko diren lanen idaztekaren epeak ez dira izango Dekretu honetako seigarren atalean aipatutakoak baino handiagoak.

e) Hitzarmena izenpetzen denetik hilabete igaro ordurako, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren dirulaguntzaren %15a gehien bat ordaindu ahal izango da, beti ere Udal guztientzat erizpide berdinak erabiliko direlarik, eta gainetikoa, egindako lanen ziurtagirien aurrean, bi zuzendariek izenpetuak edo Lurralde Antolaketa eta Hirigintza Zuzendari Jn. T. Argiaren erabakien bidez.

*5. Atala.* 1. Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak eman beharreko ehunenekoa kalkulatzeko erabiliko den Birgaikuntza Plan Berezietako lanen idazketa lansarien kostuen gehienezko kopurua, honelako formula ezarriz, B.E.Z. sartu gabe, atera dadina izango da:

$$H = 25.000 \times 4{,}00 \times Fp \times S$$

H-k lansariak pezetatan hartuta esan nahi du, eta Fp eta S-k Plan Partzialetarako ekainaren 17ko 2152/1977 Errege Dekretuko 2.2.9. idazatian emandako balioak izango dituzte, beti ere Fp lortzeko 1,5 m2/m2tik gorako eraikigarritasunari dagokion zutabeari jarraituz.

c) Haber realizado estudios, planes y proyectos sobre el Area de Rehabilitación que denoten un interés municipal por los problemas de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado.

d) Tener sujeta el área a incoación o declarada Conjunto Histórico-Artístico.

*Artículo 3.* 1.– El objeto del convenio de colaboración es la redacción de los Estudios Socio-Urbanísticos de conformidad con lo establecido en la Orden del Departamento de Política Territorial y Transportes reguladora del contenido mínimo de los mismos y/o los Planes Especiales de Rehabilitación de acuerdo con el Decreto 278/1983 de 5 de diciembre, sin perjuicio de las competencias de tramitación que les correspondan a los Ayuntamientos de conformidad con la legalidad vigente.

2. Igualmente podrá ser objeto de convenio la redacción de la cartografía, a escala: 1/500 ó 1/200, precisa a los efectos de la posterior elaboración de los trabajos indicados en el párrafo anterior.

*Artículo 4.* 1.– El convenio se ajustará a las siguientes bases:

a) El Ayuntamiento realizará la contratación de los trabajos objeto del convenio, con los equipos facultativos que estime precisos, debiendo recibir la conformidad a estos efectos del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente.

b) El Ayuntamiento y el Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente nombrarán sendos responsables como Directores de los trabajos que se encargarán de transmitir al equipo las instrucciones precisas para el mejor desarrollo de los trabajos y que servirán de enlace con las respectivas administraciones.

c) El Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente podrá aportar una cantidad no superior al 90% ni inferior al 30% del costo de los honorarios de redacción de los trabajos objeto de convenio, incluido el I.V.A. correspondiente, calculados con los mismos criterios para todos los Municipios.

d) Los plazos de redacción de los trabajos a estipular en el contrato no podrán superar a los indicados en el artículo seis de este Decreto.

e) La aportación económica del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente se podrá formalizar hasta un máximo del 15%, calculado con los mismos criterios para todos los Ayuntamientos, en un plazo no superior a un mes desde la firma del convenio, y el resto contra certificaciones de los trabajos realizados, suscritas por los dos directores, o mediante resoluciones del Ilmo. Sr. Director de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

*Artículo. 5.* 1.– La cuantía máxima del costo de los honorarios de redacción de los trabajos de los Planes Especiales de Rehabilitación, sobre la que se calculará el porcentaje a aportar por el Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, sin incluir el I.V.A. será la obtenida, aplicando la siguiente fórmula:

$$H = 25.000 \times 4{,}00 \times Fp \times S$$

Siendo H los honorarios en pesetas y teniendo Fp y S los valores que les atribuye el apartado 2.2.9. del Real Decreto 2152/1977 de 17 de Junio para los Planes Parciales, utilizando siempre para la obtención de Fp la columna correspondiente a la edificabilidad de más de 1,5 m*2/m*2.

2. Gizarte eta hirigintzazko azterlanaren idazketa lansarien kostuaren gehienezko kopurua, Birgaikuntza Plan Bereziari gehienez dagokionaren %30koaren parekoa izango da.

*6. Atala.* 1. Lanen idazketarako kontratuak, hitzarmena izenpetu dadinetik eta bi hilabete baino luzeago ez den epe barruan egingo ditu Udalak .

2. Gizarte eta hirigintzazko Azterlana, kontratua izenpetu dadinetik eta bost hilabete baino luzeago ez den epe barruan egingo da.

3. Plangintzaren Erizpide, Helburu eta Irtenbide orokorrak hartzen dituen agiria, Plangintzaren Arautegiaren 125. eta 147. atalen arabera, kontratua izenpetu dadinetik eta zortzi hilabete baino luzeago ez den epe barruan egingo da.

4. Birgaikuntza Plan Bereziaren idazketa, plangintzaren erizpide, helburu eta irtenbide orokorrak Udalak onar ditzanetik eta lau hilabete baino luzeago ez den epe barruan egingo da.

*7. Atala.* Aipatu lankidetzaren hitzarmena izenpetzea eskatzeko, Udaletako Alkateek honelako agirak bidaliko dituzte Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Dekretu hau ager dadinetik eta 30 eguneko epean:

a) Eskabidea aurkezten duen idatzia.

b) Helburu berdinez beste Erakunde batzuri eskatu edo, horrela balitz, hartutako laguntzen zenbatekoak jasotzen dituen egiaztagiria, kopuruak azalduz.

c) Dekretu honetako bigarren atalean azaldutako inguruabarrak betetzen direla zuritzeko beharrezko agiriak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizakrian argitara dadinetik sortuko ditu bere ondorioak.

Gasteiz, 1989.eko otsailak 28.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hirigintza, Etxebizitza
eta Ingurugiro Sailburua,
JOSE MIGUEL MARTIN HERRERA.

2. La cuantía máxima del costo de los honorarios de redacción del estudio socio-urbanístico, será la equivalente al 30% de aquella que corresponda como máximo al Plan Especial de Rehabilitación.

*Artículo. 6.* 1.– Los contratos para la redacción de los trabajos se formalizarán por el Ayuntamiento en un plazo no superior a dos meses a partir de la suscripción del convenio.

2. El Estudio socio-urbanístico se realizará en un plazo no superior a cinco meses desde la suscripción del contrato.

3. El documento comprensivo de los Criterios, Objetivos y Soluciones generales del planeamiento, en virtud de los artículos 125 y 147 del Reglamento de Planeamiento, se realizará en un plazo no superior a ocho meses desde la suscripción del contrato.

4. La redacción del Plan Especial de Rehabilitación se realizará en un plazo no superior a cuatro meses desde que el Ayuntamiento adopte los criterios, objetivos y soluciones generales del planeamiento.

*Artículo 7.*– Para solicitar la suscripción del convenio de colaboración citado, los Alcaldes de los Ayuntamientos habrán de remitir al Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente en el plazo de 30 días desde la publicación de este Decreto en el Boletín Oficial del País Vasco, la documentación siguiente:

a) Escrito de formalización de la solicitud.

b) Certificación en la que se haga constar las cuantías de las ayudas que, en su caso, hayan sido otorgadas o solicitadas a otros Entes con la misma finalidad, con expresión de su importe.

c) Los documentos precisos para justificar el cumplimiento de las circunstancias indicadas en el artículo segundo de este Decreto.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto surtirá efectos a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 1989.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Urbanismo, Vivienda
y Medio Ambiente,
JOSE MIGUEL MARTIN HERRERA.

**679**

**Urtarrilaren 10eko 28/1989 DEKRETUA, Euskal Herriko Ingurugiro-Batzordea eratzezkoa. (Hutsen zuzenketa)**

1989.eko otsailaren 27ko 39 zbk.-dun E.H.A.A.-n argitaratutako Dekretu hori sartzerakoan huts egin dela ohartuta, hemen jarraian horri dagokion aldaketari ekin zaio:

1169 orrialdean, bigarren lerroaldian, zera dioenean:

«Euskal Herriko Ingurugiro-Batzordea, beraz, ihardutze-erizpideen bidezko egin ahal izateko tresna eratzen da, ingurugiro-politika eginkorra eta benetako egoerari lotuta modo egokiagoaz gauzatzeko bidea eman dezaten oinarrizko azpiegiturak sortuz eta hobe-

**679**

**DECRETO 28/1989, de 10 de Enero, por el que se constituye la Comisión Ambiental del País Vasco. (Corrección de errores)**

Advertido error en la inserción del citado Decreto publicado en el B.O.P.V. nº 39 de 27 de Febrero de 1989, se procede a la oportuna modificación:

En la pagina 1169, parrafo segundo, donde dice:

«La Comisión Ambiental del País Vasco se constituye de esta forma, como el instrumento capaz de hacer viable una unificación en los criterios de actuación, creando y mejorando las infraestructuras básicas que permitan ejecutar de manera adecuada una política